

ttipi-ttapa

1993.eko Irailak 23

118. zenbakia

dohain banatzen da



**BAZTANGO HAURTZAINDEGIA:
TTIKIENAK ERE ESKOLAN**

argazkia: Karmele TOLOSA

1993

Zerbitzu arina eta zugandik hurbil dagoena
Baztan-Bidasoan

M E R K O R

SUAREN KONTRAKO ZAINKETA INTEGRALA

Gure enpresa suteen kontrako materialeen komertzializazioan espezializatua dago.

MERKOR duela bortz urte hasi zen lanean eta Elizondon ditu bere bulegoak. Baztan-Bidasoalderako ez ezik, bere zerbitzuak Espainia osokoenpresa eta suhiltzaileentzat ere eskaintzen ditu. Komertzializatutako materialeek duten goi mailako kalitatea eta teknologiarik esker, lortua duen prestigioa nabarmena da.

Zona mailako merkatuan, MERKORek suaren kontra edozein klasetako materiale eta produktu komertzializatzen ditu. Sua itzaltzeko erraztatik hasi eta erreskate aparailu eta talde elektrogenoak bitarte, estintoreak, detektagailuak, motobonbak, mangerak, su-garrei bidea eragozten dieten ateak, ate hezeak eta abar.

Hortaz gainera MERKOR-ek estintoreak ikuskatu, bete eta tinbre berriz hornitzeko zerbitzua eskeintzen du, eta baita ekipo hauen salmenta eta alogera ere.

BULEGOAK:
Salvador 32
Posta Kutxa 12
Tfnoa: (948) 45 21 81
Faxa: (948) 58 04 65
31700 ELIZONDO



BILTEGIA:
Zelaia Industrialdea
ORONÓZ-MUGAIRE

DELEGAZIOAK:

BERA: Jose M^o ANDUEZA, Tfnoa.- 630854
ELIZONDO: Angel M^o TRANTXE, Tfnoa.- 452246

ETXALAR

ARTEA ETA KULTURA

UDAZKENEKO UDAL KULTUR EKITALDIAK

Igandea, irailak 26

Etxalarko Altxata eta Sarako Olhain
elkartek antolatutarik
arratsaldeko 4etan:
Dantzak, pilota partiduak eta berendua.
Arratsaldeko 7etan Musika Gregorio
Mitxelenarekin

Igandea, urriak 3

TROKOLO ANTZERKI TALDEA
12etan 'Zalapartaka' antzeslana

Igandea, urriak 17

USATEGIETAKO IGANDEA
5,30etan Berako GURE TXOKOA
Dantza Taldea
Dantzaldia EGAN Taldearekin.

Larunbata, azaroak 6

ELIKAGAIK ETA OSASUNA
Hizlaria: Julian Bereziartua
Ordua: 6etan
Lekua: Eskola Zaharrak

Antolatzailea:



Etxalarko Udala
Udal Kultur Batzordea

Laguntzailea:



Nafarroako Gobernua
(Principe de Navarra)



ARTEA ETA KULTURA

non - zer

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea.

Ale honetan parte hartu dute: Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Ainhoa Mutuberria, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa eta Josetxo Susperregik.

Argitaratzailea: *ttipi-ttapa*.

Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa.: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/27 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

28 ERREPORTAIA: Etxeak berritzeko laguntzak; hamar urte baino gehiagokoak eta elbarrituendako egokitu nahi diren etxebizitzak sartzen ahal dira.

Joxemanuel Irigoien

30 ELKARRIZKETA: Baztango haurtzaindegia: «Lehen orain baino urte gehiagoz edukitzen zituzten haurrak etxean».

Aitor Arozena

32 KIROLAK: Eratsungo herriak Julian Retegi Ila herriko semea omendu zuen

34 MERKATU TTIKIA



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaie592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie592255

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► Irailaren 25-26an,

Bera, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► Urriaren 2-3an,

Arantza, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

Kantaldiak

► DONEZTEBE

Irailaren 25ean, Doneztebeko 'Kurkuxe', 'Miren eta Joana', 'Miren eta Estibalitz', 'Xarmataldea' eta 'Elur Lore' taldeak eta iparraldeko 'Trigoien Anaiak'.

Zinema

► DONEZTEBE

Irailaren 24ean, zinemaren 'Behiak'.

Erakusketak

► DONEZTEBE

BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA

Irailaren 25etik urriaren 6ra, Bertizko Partzuer-go Turistikoari buruzko erakusketa. Irailaren 24ean, arratsaldeko 6,30etan inaugurazioa.

Bertsoak

► URROTZ

Urriaren 2an, bertso bazkaria Lizaso, Mendizabal eta Telleria bertsolariekin.

► DONAMARIA

Urriaren 9an, bertso bazkaria Mañukorta, Murua eta Bittor Elizagoien bertsolariekin.

► ANIZ

Urriaren 5ean, zikiro-jatearen ondotik, Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Txomin Amorena.

Bota bertsoa



Erika LAGOMA

Bortzirietako Bertso Eskola

Gaia: Udazkena

Doinua: Peñagarikanorena

Hosto guztiak erortzen dira
lur guzia estalirik
gaztainak urrak eta intxaurrak
mendietan hedaturik
urre kolorez jantzi ohi zaigu
ingurua alaiturik
baina hau ez da bakarrik
alaitasunez beterik (bis)
txori guziak joaten dira
haizeetan murgildurik
urte osoan ez da ikusten
paisaia ederragorik (bis).

Uda daukagu urtaroetan
aipatzen duten izarra
baina neretzat udazkenak du
benetan behar den garra
eta gainera ni ez naiz hori
pentsatzen duen bakarria
ahazten dugu zoritxarra
poza dago barra-barra (bis)
baina halere urtaro honek
badu bere alde txarra
udan hain ongi pasa ta gero
eskolara joan beharra (bis).

Bestak

IGANTZI

Irailaren 28tik urriaren 2ra (ikus xehetasunak 12. orrialdean).

DONEZTEBE

San Miguel auzoko bestak irailaren 25 eta 26an.

LESAKA

EUSKAL JAIA

Irailaren 26an (ikus xehetasunak 10. orrialdean).

URROTZ

Irailaren 28tik urriaren 3ra (ikus xehetasunak 19. orrialdean).

ANIZ

Urriaren 2tik urriaren 5era (ikus xehetasunak 23. orrialdean).

Antzerkiak

ETXALAR

Urriaren 3an, 12etan Trokolo antzerki taldearen 'Zalapartaka' antzeslana.

Gastronomia

OILASKO BETEA

Osagaiak 4 lagunendako:

Oilasko bat, haragi xehetua, txanpinonak, xingarra, arraultzeak, baratxuriak, tipula, olio eta ardo xuria...



Maritxu URTXEGIk emana Berako Eskolako sukaldaria.

Lehendabiziko oilaskoari hezurak kendu behar zaiz-

kio eta gatzak eman. Haragi xehetua, txanpinonak eta xingarra prexistu ondotik ongi nahasi eta masa horrekin oilaskoa bete eta josi.

Oilaskoari olio, tipula, baratxuria eta ardo xuria eman eta laberan sartzeko prest dago. Egina dagoenean hostutzen utzi behar da xerratzeko. Xerrren gainetik saltsa pasatua bota eta jateko prest.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 3.280 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 148 pzta/kilo **Zerramak**: 78 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....600-620
1.koa.....570
2.koa.....550

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....630-640
1.koa.....590
2.koa.....570
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 410-420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 450-470 Pzta./Kg. Ka-

nal.

•Aretze tikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 25.000 artean eta idixkoak 39.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 35-40.000 eta idixkoak 45-50.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

NATUR ETA ESKU TERAPIA QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizudeitu telefono bontara:

☎ 45. 16. 42

Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**



❖ Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

ttipi-ttapa
hamabostekaria

5.600 harpidedun, 19.000 irakurle



► Juan Mari Ondikol

Elizondoko prentsa argazkilaria

Donostiako Zinemaldia

Donostiako Zinemaldiak aurten zuzendaritza berria estreñatu du. Dena den, Manuel Perez Estremerak eta Diego Galanek orain dela lau pabortz urteko bideari heldu dio, orduko zenbait ekitaldi eta sail berreskuratuz. Sail ofizialak 20 filme aurkeztu ditu, 5 lehiaketaz kanpo. Gainerako 15 pelikula nahiko ezezagunak dira.

Filmeak aukeratzeko talde kompetentea dagoenik ezin uka arduradunei, baina filme horiek gainerako jaialdian pasa eta

gero iritsi dira. Zabaltegi saileko zerrenda, Berlin eta Cannesetik etorritako produktoak dira batez ere; horietako zenbait jada Baionan estreñtuak gainera.

Belodromoa ere berreskuratzen da aurten goan, ikusleei -

umeei ez ezik publiko zabal batentzako - pantaila haundiko zinema eskeinitz. Hego Ameriketako zineak ere bere lekua mantenduko du sail berezi batekin. Zabaltegi sailean, aurten go denboraldian arrakasta-

tsua suertatzen ari den 'El mariachi' filma eskeinitzeko dute sail hau indartuz. Donostia sariari dagokionez, Robert Mitchuni egokitu zaio aurten goan.

MARIANO



OKANE

- Haragi
- Janari-izoztu
- Enbutido
- Jogurt...

Kanttonberri 4,
Tfnoa: 63 00 18
BERA



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

ttipi-ttapa
hamabostekaria

5.600 harpidedun, 19.000 irakurle

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ☞ Inprenta lanak enkarguz
 - ☞ Kautxuzko zigiluak
 - ☞ Kartelak eta fakturak
 - ☞ Enkuadernazioak...


Legarra 9, © 637030 - LESAKA

Bertizko Turismo Partzuergoak antolatuta 'Turismoa eta garapen ekonomikoa' erakusketa Donezteben

Ortziral honetan (hila-
lak 25) zabalduko da
Donezteben 'Turismoa
eta garapen ekonomikoa'
izeneko erakusketa, Ber-
tizko Turismo Partzuer-
goak antolatuta. Erakus-
keta hau urriaren 6a bi-
tarte egonen da zabalik
Leku-eder zineman eta
Malerreka inguruko biz-
tanleei zuzentzen zaie.
Ondotik Elizondon

(urriaren 18tik 31ra), Be-
ran (azaroaren 1etik 14ra)
eta Lesakan (azaroaren
15tik 28ra) egonen da.

Eraberean, hilaren
30ean, arratseko 7,30etan
Doneztebeko zinean egi-
nen den bilera batera dei-
tuak daude Doneztebe,
Elgorriaga, Donamaria,
Oitz, Ituren, Zubieta eta
Urrotzko dendari eta
merkatal etxeak



Ikastaro berri bati ekin diote eskualdeko 3 eta 14 urte bitarteko neska-mutiko gehienak. Zaharxeagoak laister hasiko dira.

Juan Cruz Allik dioenez, alkateak 'negartiak' dira

Halaxe adierazi zuen Doneztebera egindako bisitan



"Badirudi alkatea iza-
teak negarti xamarra iza-
tea ere ekartzen duela".
Halaxe adierazi zuen Juan
Cruz Alli lehendakariak
irailaren 9an Doneztebe-
ko Juanseneara egindako
bisitaldian.

Izan ere egun horretan
zabaldutako ofizialki etxe
horretan 'Experimenta-
zio eta Nekazal Pres-
takuntza Profesionalerako
Zentrua'. Ekitaldi ofizia-

lerra, Juan Cruz Alli eta
Nafarroako Gobernu-
ko goi agintariek gain, Baz-
tan, Malerreka eta Bortzi-
rietako alkateak agertu zi-
ren.

Allik azaldu zuenez,
"laguntzen banaketa ob-
jetibitate osoz egiten da"
eta egoera justifikatzeko,
"eskariak %400ean gain-
ditzen dutela inbertsiota-
rako Gobernuak duen
partida" argudiatu zuen.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitortpenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



HERRI KIROLAK, AGUR BERO BAT

Inoiz ez genuen pentsatu ere orain dela 4 urte Herri Kirolaren afera hau mugitzen hasi ginetik horrelako emaitzak izanen genituela. Pozgarria da gaur egun dagoen mugimendua ikustea bai haur, gazte, nola heldu mailan (bai neska nola mutil-tan), honek erran nahi du orain dela lau urte martxan paratu zen proiektua bide egokia izan zela.

Baina etapak bukatzen dira eta oraingo Herri Kirol Federazioak (Junta Direktibak) bertze

bide bat hartzea erabaki du, guk aurkeztu genuen proiektuari uko eginez. Inungo objetibitatez hartutako erabaki honek eragin du Federazioari dimisioa aurkezte, ezinezkoa dugu onartzea bere egunean gehiengoaren baimenez erabakitako gauza bat nahi den bezala interpretatzea eta subjetibitate osoz aktuatzea, jarri ziren oinarri objektiboei uko eginez. Horrela Herri Kiroleko arlo guztietan ardura guztiak uzten ditugu.

Lerro hauetatik esker mila aunitz ematen dizkiegu gurekin batera lanean

ilusioz aritu zareten guztieri (eta gure hanka sartzeak barkatu), eta Federazio honi kontseilu bat emanen genioke, hau da, bide kontserbazionalista bat ez hartzea, baizik eta bide aurrerakoi bat, gure herriak horrela behar duelakotz.

Bertzerik gabe eta denei Herri Kirola indartzea animatuz, agur mingarri bat Herri Kirolari.



- Mikel IBARROLA
(Herri Kirol Federazioko Zuzendariordea)
- Mattari ALTZUARTE
(Federazioko bokala)

KARRAPE IRRATIKO IKASTAROKIDEEI

Irrati ikastaroan, bi astebukaera eritimo bizi-az, bihotzaren pultsazioak ezin neurtuz, norberak ahal zuena mikrofonoaren aurrean jarritz, taldeko giro polita osatu dela uste dut. 'Zerbaitek' elkartzen gintuen eta larritasun horien ondoren, irria eskaintzeko behar adineko indarra hartu eta sortu genuen. Bakoitzak bere buruarekin froga haundi batekin du eta entzulegoaren nahietara iristen saiatu gara haserako esperientzi honetan. Esperientzi polita eta honetarako Joseba, irrati munduan murgildurik eta

'engantxatuta' dagoen irakaslea, nahitaezko pertsonajea izan dugu gustora burutu ahal izateko. Orain bi langile izan diren kontratoarekin geldituko direnak, baina hasitakoari segida emateko, hementxe dugu aukera besteok. Hoztu baino lehen ea animatzen garen gure laguntza txikia ematen. Ordu-rarte.



Mikel I.
15.939.028

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendarak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue


- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak

Bertan egiten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603
IRUN




Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598
ERRETERIA

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoak
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak

Urriaren 10ean Beratarrak Urruñara joanen dira bisitan

Gure Txokoa eta Urruñako Berttoli elkarteak dira herremanatzearen bultzatzaileak

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Bera eta Urruñako arteko harremanen barnean, Berako Gure Txokoak eta Urruñako Berttoli elkarteak bultzatuta, ekitaldi berri bat iragarria da urriaren 10erako. Igande goiz horretan, lehenik herria bisitatzea pentsatua dago (Eliza, Urtubiko gaztelua...) eta eguerdian elkartasun bazkaria izanen da Berttoli Elkartearen.

Igande horretakoak segida emanen dio abuztuaren 22an Urruñan egingakoari. Orduan Berako koralak eta trikitixaren aktibazioaz gain, marmitako txapelketa eta elkartasun bazkaria ere izan baitzen.

Aktibitate horiek entzute suena, halere, iparralde eta hegoaldeko hainbat akua-relistek egindako erakusketa izan zen, guztira 104 akuarela bilduz.



Argazkia: TELLETXEA

Berako Koralak arrakasta handia lortu zuen abuztuaren 22an Urruñako Eliza jendez bete-betea zegoela.

Ikastetxeetako euskarazko lerroetan urtetik urtera ikasle gehiago

OHOk hiru ikastetxeetako zuzendariak adierazi digutenez, aurtengo gutxiengo baldin badituzte ere, urtetik urtera gehiago dira euskal lerroetako ikasleak. Eskola Publikoan, errate baterako, 167 ikasletatik 122 'D' ereduaren daude

(dena euskaraz) eta 45 'A' ereduaren (dena erdaraz). Jesusen Bihotza ikastetxeko 221 ikasleetatik 72 (iaz baino gehiago) 'B' ereduaren daude (erdaraz eta euskaraz) eta 149 'A' ereduaren (dena erdaraz).

Ikastolan azkenik 193 ikasle dituzte aurtengoan.

ttipi-flash

- ☐ **Hezkuntza** okupazionalerako ikastaroetan (EPA) parte hartzeko izena eman dutenek hila-bete honen 28an (asteazkena) bilera dute 4,30etan Herriko Etxean azkeneko xehetasunak zehazteko.
- ☐ **Lurraren Eguna** aurtengoan urriaren 31n burutuko da.

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA


ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LOZOTEGI-JAONE



Itzea 3, 630786 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

LESAKA

Euskal jaia ospatuko da igande honetan

Tantirumairu dantza taldeak antolatuta



AITOR AROZENA

Tantirumairu dantza taldeak antolatuta euskal jaia ospatuko da igande honetan, irailak 26.

Goizeko 10etan diana izanen da txistulariekin. Goizean kalejira herrian barna Ainhoako Atsulai, Soralueko Ametsa eta

Lesakako Irain eta Tantirumairu dantza taldeekin. 12,30etan dantza saioa plazan, arestian aipatutako taldeekin. 1etan bertso saioa Bortzirietako bertso eskolaren eskutik. Ondotik txalaparta eta Lesakako abesbatzaren kantu emanaldia.

Arratsaldeko 4,30etan haur jolasak eta 8etan Tantirumairu txaranga herriko giroa berotzen. Egun guztian, erakusketa ezberdinak izanen dira Herriko Etxeko arkupetan.

Egun berean, eguerdian, kale antzerkia izanen da euskaltegiak antolatuta.

W ttipi-flash

□ **Gazte Asanblada** osatzeko asmoz bilera bat egingen da ortzegunean (hilak 23) gaueko 9,30etan Herriko Etxeko arkupetan.

□ **Bertizko Turismo Par-tzuergoaren** kide izateagatik 549.800 pezetako kuota ordaindu behar du udalak, biztanle bakoitzeko 200 pezeta.

□ **Drogari** buruzko hitzaldia egingen da ortzirale honetan (hilak 24) arratsaldeko 6etan Herriko Etxeko pleno aretoan.

□ **EPA** ikastaroetako taldeak osatzeko bilera bat burutuko da hilaren 29an arratsaldeko 4,30etan.

□ **Kanposantuko** hilobien prezioen inguruan eztabaida gogorra piztu zen azken udal plenoan. Eako ordezkaria eta alkatearen artean. Hilobi bakoitzeko 91.536 peze-ta ordaindu beharko dira eta bertze 8.000 peze-ta lur-emateko.

ONIN
Agentzia

Albistur 53, ☎ 637359 - LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zunzarren-en kolaboratzaileak

SASKI
OSTATUA
LESAKA

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA
TXURULA
Bitirra LESAKA
☎ 627542

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarra - LESAKA

Kultur ekitaldi aunitz antolatu dira udazkenerako

Irailaren 26an, saratar eta etxalartarren topaketa ospatuko da

PELLO eta ALBERTO

Udaleko Kultur Sailak antolatuta, Udaberrian egindako kultur ekitaldiei jarraituz, datozen hilabeteetan zenbait kultur ekitaldi izanen ditugu. Haste-ko, irailaren 26an, musika Gregororen eskutik. Egun honetan, Altxata Elkartearren antolaketaz, saratar eta etxalartarren topaketa ospatuko da. Sarako musikari eta dantzariak saioa eske-keiniz, baita Etxalarko txistulari, trikitilari eta dantzariak ere. Udaleko kultur ekitaldiekin segituz, urriaren 3an, «Trokolo» antzerki taldearen 'Zalapartaka' obra ikusteko aukera izanen dute gazteek,



Irailaren 13an bueltatu ziren haurrak eskolara. Aurten, 48 ikasle izanen dira, erdiak eskolaurrean. 6 ume berri badira ere, 11 Berara joan dira.

Urriaren 17an Usategie-tako igandean, Berako «Gure Txokoa» dantza taldea arituko da. Bukatze-ko, azaroaren 6an, Julian Bereziartua medikuak elikagai eta osasunari buruz

hitzeginen du. Ekitaldi hauen eta Udaberrian izandakoen presupuestoa ia 4 milioi pezetara ailegatzeko da. Nafarroako Gobernuak ehuneko 65a paratu du eta Udalak bertze guzia.

4 milioi pezeta uso ehiza enkantean

Irailaren 11 ehiza postuen enkante edo subastaren eguna izan zen. Hogeitabi postuetatik, hemeretziaren hasierako prezioak hobetu egin ziren. Harrigarria bada ere, hiru postu garestienek – sareko 1, 2 eta «parapeto» deituak – ez zituzten beraien prezioak gehitu. 18.000 pezetara balio zuen 24. postua, berriz, 137.000 pezetara ailegatu zen. Guztira 4.088.000 pezeta jasoko ditu herriak, iaz baino 826 mila gehiago. Dena den, berri hau idazterakoan, sextea egin gabe zegoen.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

EROSLE LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



Komunitako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

San Miguelak

Irailak 28, asteartea
8etan txupinazoa eta
11,30etan MINXORIAK taldea.

Irailak 29, astezkena
11,30etan meza nagusia.
12,30etan herriko dantzarak.
5,30etan Lesakako akorde-
oilariak. 7etan bertso saioa:
Manolo Arozena, Peñagarika-
no, Maddalen Lujanbio eta
Murua. Gai-jartzailea: Egaña.
Arratsaldeaz eta gauez AR-
KAITZ taldea.

Irailak 30, ortzeguna
10,30etan plater tiraketa.
12etan profesionalen arteko
pala partiduak. 2etan Zikiro
jatea Lizaso eta Arozena ber-
tsolariekin eta trikitilariekin.
7etan Maixa eta Itziar trikitila-
riak. **Gaueko 11etan** Tapia eta
Leturia Band.

Urriak 1, ortzirala
Egun osoan haurrentzat jokoak,
11,30etan herriko haurren ar-
teko pilota partiduak. 5etan



herri kirolak: fardo altxatzea,
Iparraldeko jokoak eta aizkora
eta arpana apostua: Aierbe I. -
Latasa, Aierbe II. - Agiteren
aurka. 5etan gaiteroak. **Dan-
tzaldia** BASAJAUN taldea.

Urriak 2, larunbata
10etan argi-soinua gaiteroekin.
11,30etan pilota partiduak: Ar-
bizu - Goñi, Mariezkurrena -
Almandozen aurka. 5,30etan
Nafarroako 2. mailako aizkolari
txapelketako kanporaketa.
5,30etan gaiteroak. **Arratsal-
dez eta gauez** IZOTZ taldea.



JATETXEA

LA VILLA

**Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu**

Tfnoa: 63 72 90
IGANTZI

ZALAIN MOTOR


• FORD ZERBITZU OFIZIALA •

AUPA SAN MIGUEL



Mekanika • Karrozeria • Elektrizitatea

Zalain auzoa, © 631157 BERA



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZTUN S.L.

Eraikuntza eta moldaketak
Despiezea eta makinaria
Mekanika mantenimendua

Igantzikoko Bentak ☎ 627572 ☎ Faxe 637313

SEBERIANO TXOPERENA



Oilasko eta oilanda salmenta

Tfnoa: 637784 • IGANTZI

BI - BIDE
Ostatu - Janaridenda

BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU

Tfnoa: 63 72 78
IGANTZI

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS S.A

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

Igantzikoko Bentak • ☎ 63 74 11

TXOPERENA Lantegiak

Nekazal makineriaren salmenta eta konponketa



- Traktoreak •
- Segagailuak •
- Eraistailuak •
- Motozerrak •
- Desbrozadorak •

Tel. 63 79 95 • IGANTZI

OSKAR



Igantzikoko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

Besta Zoriontsuak!



NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

OSKAR



Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantzian eta bisitari guziei

Ikasturte honetan iaz baino bortz ikasle guttiago

Jantokiaren martxa Guraso Elkarteak hartu du bere gain

MIRARI eta MARTA

Hasierako egunetan klasea goizez bakarrik izan ondotik, 23tik aintzineraz goiz-arratsaldez hasiak dira. Aurten jantokiaren gestioa guraso elkarteak hartu du bere gain eta eskolako 64 haurretatik 46k bertan bazkalduko dute. Sukaldaria, azken urteotan bezala, Sagrario izanen dute.

Aurten bi maisu berri daude: Doneztebeko Sara Mailin 6 eta 7. mailakoe-kin egonen da eta Loli Goienetxe amaiurtarra laguntzaile gisa egonen da erdi zikloan eta eskolaurtean.



9 ikasleak akabatu zuten iaz zortzigarren maila eta aurten 4ikasle berri sartu dira bakarrik

□ **Bortzerritako** Gizarte Zerbitzuak 'Aprende a beber' programa jarriko du martxan. Komisio honetan parte hartzeko, Arantzako udal ordezkaria Patxi

Etcheberria izanen da.

□ **Zerrado** ondoko pinadiaz Patxi Bergarak garbituko du, bertan ateratzen den egurraren alde.

□ **Ekaitzan** 20 eta Ame-

txokon 30 hektarea planta sartzeko eskaria egin dio udalak Diputazioari.

□ **Berako** Uxanera ezin- duak eramateko zerbitzua DYAk egitea onartu da.



ATERPE
jateixea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

TXOKOA OSTATUA

- × Eguneko menua
- × Asteburutan, kaxuelak eta karta
- × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- × Pintxoan espezialduak × Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAI

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

- × HERRIAK
 - × MENDIAK
 - × TURISMOA
 - × TREKING eta
- BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUNA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUEN

KOXXKONTA



Sagardoa
botiletan
salgai

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

SUNBILLA

Trikitilarien Eguna urriaren 10ean ospatuko da

Herri Bazkarian Tapia eta Leturiak parte hartuko dute

JOSUNE ETA AINHOA

Urriaren 10ean ospatuko Sunbillan Bigarren Trikitilarien Eguna, bertako trikitilari eskolak antolatuta. Aurten bazkaria Elor-Txuri jatetxean izanen da eta bazkaria alaitzeko Tapia eta Leturia trikitilariak egonen dira. Trikitixa eskolako ikasleek ere jotzeko aukera izanen dute.

Bazkari honetara etortzeko interesatuak dauden guztientzat txartelak salgai izanen dira Herriko Ostatuan, Fondan eta Bustitz ostatuan. Helduentzako prezioa 2.500 pzta. eta haurrentzako 1.500 pzta.



Ostatu berria

Abuztuaren 7an ireki zen apaizaren bedeinkazioarekin 'Bustitz' ostatua, Leku-Eder karrikan. Hamketakoa ere banatu zen.

Mus txapelketa

Irailaren 10ean, Fonda ostatuan aurtengo denboraldiko mus txapelketari hasiera eman zitzaion. Txapelketa hau ortziralero

jokatuko da, gaueko 10etan.

Sariak beti bezalakoak izanen dira, baino tenporada bukaeran erregularitate sariak ere banatuko dira.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**



*Udazkenerako
arropa goxoak*

**San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE**



TELLETXEA

MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- ☐ Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak.
- ☐ Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- ☐ Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

San Miguel auzoko bestak asteburu honetan

Musika eskolarako eskatutako baldintzak 2 irakaslek bakarrik betetzen dute

TXEMA ALDABE

Larunbat eguerdian botako den altxaferoarekin hasiko dira San Miguel auzoko bestak. Arratsaldeaz haur jokoak eta txokoltia banatuko da. Gueuz 'Mi novia es una extraterrestre' pelikula eta musika herriko 'Zumarika' taldearekin. Ondotik dantzaldia Ramontxorekin.

Igandean meza San Migel ermitan eta hameketakoa Doneztebeko txistulariekin. Eguerdian Lesakako akordeoilari banda. Herri bazkariaren ondotik, haurrentzat pasealdiak zaldiekin. Arratsanean dantzaldia Ramontxorekin.



Oteiza auzoko Juansenea etxea inauguratu zuten

KARMELE

□ **Musika eskolarako** lau lanpostu hornitzeko aurkeztu diren irakasleen artean bik bakarrik betetzen dituzte baldintzak euskararen ezagupenari

dagokionez (EGA edo baliokidea eskatu zen). Hutsen gelditzen diren lanpostuak betetzeko aukerak aztertu ondoren, iazkoak hartzea erabaki du udalak.

W ttipi-flash

□ **Nafarroako** txirrindulari itzuliko etapa baten bukaera eta kronoigoera burutuko dira herrian.

□ **Central Hispanotik** 4 milioi pzt. ebatsi zuen batek duela hilabete batzuk eta berriki bi lagun saiatu ziren bainaez zuten lortu, bertako langile batek eragotzi zielako. Belaten harrapatu zituzten bi lapurrak eta hauen deklarazioak zirela eta, Jose Ramon Apezetxea bankoko langilea ia bi egunez atxilotua egon zen. Lapurrek ziotenez, lapurretan elkar hartua edo zerikusia omen zuen.




SANTAMARIA Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



OTORDUAK • LOGELAK
Tfnoa: 450793

ZUBIETA

Makrame eta zurgintza ikastarokoek erakusketa egin zuten

Urriaren 9an, bestalde, musika jaialdia Balerdi-Balerdi, Pottoka eta Los Dinosaurioekin

AINHOA MUTUBERRIA

Hilaren 12an estalpean erakusketa izan zen: makrame eta zurgintza ikastaroetan egin dituzten eskulanak agertzeko. Erakusketa honek arrakasta haundia izan zuen, nahiz eta herriko jendea bakarrik bildu. 18an, Malerrekako Euskara Zerbitzuak, Euskararen Eguna ospatzeko festa bat antolatu zuen, kantaldia, akordeolariak eta bertso afariarekin. Urriaren 9an, berriz, beste jaialdi bat izanen da Balerdi-Balerdi, Pottoka eta Los Dinosaurios-en eskutik.



Bestalde, haurrak eskolan hasi dira, helduak lanean segituko dute eta negu aldera jubilatuentzat eki-

taldiak izanen dira: kirola eta eskulanak, Zamalbide eskolako bideo-pelikulak eta hitzaldiak.

□ **Irailako** euskaldun berriak aurrekoak baino lasaiago daude.

□ **Elutsa** elkarteak bidaia antolatua du Arabako Valderejoko parkera hila-bete honetarako.

□ **Filmeen** lehen saioa, Zaireri buruzkoa izan zen. Pentsatzen hasi gara datorren udan hara joatea oporrak pasatzera.

□ **Joaldunak** ezagunak egiten ari dira mundu guzian. Lehenbizi Bretañara joan ziren, gero Sevillako Expora eta azkenekoz Galizian. Ez ote du mugarik jende honek?

ITUREN

Aurten lau ikasle berri sartuko dira eskolan

IBAN ISASI

Ikasturtearen hasiera nahitaezko erreferentzia izaten da garai honetan. Bertze herritan bezala, klaseak 13an hasi ziren. Aurten 4 haur berri matrikulatu dira, eta eskolaurretik 6. maila bitarte, 45 daude guzira. Hauekin 4 irakasle; bi joan den urte-tik segitzen dutenak, Maitane Lakar eta Miguel Os-koz, eta bertze bi aurten sartuak, Mikel Gereka eta Begoña Iltzarbe.

Partzuergo Turistikoaren bilera

Pedro Perez Uriz, Bertizko Partzuergo Turistikoaren (konsortzioaren) presidentea eta Jabier Rozas 'Acis' enpresaren arduraduna Iturengo Herriko Etxean egon ziren Partzuergo honen eginkizunei buruz solasean. Bilerara Ituren, Zubieta eta Beintza Labaiengo alkate-kontzejalak agertu ziren. Eginkizunetako bat nekazal turismoarentzat laguntzak lortzea da eta turismo hau



zona mailan bultzatzea. Zentzu horretan, kanpaina bat antolatua dute plan turistikoari hedakuntza emateko eta informazioa herri-tarrei zabaltzeko. Informa-

zio kanpaina hau, herriz herri ibiliko den erakusketak eta informazio ihardunaldiek osatuko dute. Erakusketa irailaren 25ean hasiko Donezteben.

Urrotzko bestak irailaren 28tik urriaren 3ra

TXEMA URROTZ

Irailaren 28an (asteartea) arratseko 8,30etan botako den txupinazoarekin hasiera emanen zaie Urrotzen San Miguel bestak. 9etan, 'pazin-zopak' Herriko Ostatuan. 12etatik 3etara dantzaldia Modestorekin. Ondotik gosaria, ogi, gazta eta ardoarekin.

Irailaren 29an (asteazkena) eguerdian meza San Miguelen ohorez eta ondotik hameketakoa. 5etan herriko gazteen arteko jokuak. Indarrak berritzeko berendu ederra banatuko da bertan. Arratsaldeaz eta gauaz dantzaldia Modestorekin.

Irailaren 30ean (ortzeguna), 12etan mus txapelketaren hasiera. 4etan piragua laisterketa Leurtzako urtegiaren. 8etan gazteen afaria Leurtzan bertan. Dantzaldia Ramontxorekin eta herriko 'txaranga'ren itzulia.

Urriaren 1ean (ortzi-rala), 12etan mus txapelketa. 1etan herrikoen arteko pilota partidoak. 5etan haur jokoak eta txokoltia. Dantzaldia Ramontxorekin eta goizaldera txistorra eta zingarra ausarki nahi duenarentzat.

Donamariako emakumeen afaria

Buelta eta buelta, azkenean plantatu ziren, eta nola gainera!



PELLO ETXEGIA

Aspalditik zebiltzan plantatu nahian eta azkenean joan den larunbatean, irailak 11, auzo guzietako hogeitabortz

emakume elkartu eta Elgorriagako fondara joan ziren afaltzera. Afaldu ondotik Oizko bestetara joan eta plaza guzia erraustu zuten. *"Oraindik hantxe daude takoien markak"*.

Biharamunean emaku-

meak agujetekin zeuden bitartean, attonak ehizi postuk moldatzera joan ziren mendi bazterretara. Honezgero prest dituzte Bidartxoko, Troskata eta Basunen dauden ehizipostuak.

Urriaren 2an (larunbata), 12etan gosaldia eta herriko txarangaren emanaldia. 1etan aizkol apostua. 2etan herri bazkaria, Lizaso, Telleria eta Mendizabal bertsolariekin. Bazkalondotik gaueko 10ak arte Modesto. Ondotik gaupasa 'Gaubela' taldearekin.

Urriaren 3an (igan-dea), 12etan herriko txaranga karrikaz karrika. 1etan pilota partidoak. Bazkalondoan etxez etxe-ko buelta eta poteoa. Arratsaldeaz eta gauaz, dantzaldia 'Gaubela' taldearekin.

EUSKARA IKASTAROAK

MAILA GUZIAK

- Euskalduntzen (8 ordu astean)
- Alfabetatzen
- EGA
- Sakontzen

4, 6, 8 ordu astean • Larunbatetan ere bai

Matrikula epea: **Urriaren 1a arte.**
Informazioa: **Malerrekako Euskaltegia**

Tfnoa: 451555



GOIZUETA


Artikutzako guardak ez du multarik jartzeko eskubiderik

Juezak bakarrik omen du horretarako baimena

ESTEBAN AROZENA

Artikutzako parajetan Goizuetako aziendak alatzea galerazia dagoela beti uste izan da, bestela esan dezatela multak edo isunak ordaindu dituzten hainbat eta hainbat artzaiek. Ba, dirudienez, orain arte guardek ezarritako isun guzti hauek ez dira legalak, horrela dio behintzat udalak eskatuta legegizon batek egin duen txostenak.

Artikutzako Donostiarena da eta Goizuetako lurraldean kokatua. Hala ere, Donostiako udaleko langileek, kasu honetan guardek, ez omen dute zigor administrariak ezartzeko inolako



Sasiak erretzeko baimena eskatzea derrigorrezkoa da

baimenik. Kaltetuak (Donostiako udalak edo bere langileak) denuntzia jarri dezake, baina multatzeko

eskubidea juezak bakarrik du. Bestalde, sasiak erre aurretik, horretarako baimena eskatzea derrigorrezkoa dela

oroitarazten du udalak bando baten bidez, "horrela, zigorra suposa dezakeen denuntziaren bat etor ez dadin".

Mendi-erretze hauetan behar diren neurriak hartu ezean arrisku haundian jartzeko omen dira gure baso eta naturaren aberastasuna eta indarrean dauden normak betetzea garrantzizkoa da.

Bukatzeko esan, landaketak eta mendien itxidurak egiteko derrigorrezkoa dela dagokion baimena eskatzea, errepoblazioen subentzioak jaso nahi duenak urtariletik martxo arteko epea baitu.

ARESO

Ehiztariak hasi dira uso postuak prestatzen

JUANA M^{te} SAIZAR

'Usoa' ehiztari elkarreak aurreko igandean egin zuen ohizko bilera eta lanak banatu zituen bere bazkideen artean. Bikote bakoitzak ehiza postu bat konpondu behar du denboraldia hasi gutxi gora behera eta ehiza postuak berriz, 29. Hauetatik 23 kanpoko jendearen artean subastatzen dira, subasta hau noiz izanen den oraindik ziur ez badakite ere.

Aurten ehizean zein postuetan hasi behar duten zozketa bidez erabaki zuten. Nahiko kezkatuak dabilta aurten ehiztariak, iaz bezala baitugu eguraldia, hegoaizea irailan eta urrian -behar de-nean-, gutxi.

□ **1993-94 ikasturtea** hasi da. Aresoko eskolan, bosgarren mailara arte 25 ume daude eta bi andereño. Mertxek 8 urte daramaki eta Maluk 3 eta kontratua fijoak dute.

□ **EPA ikastaroetako**



Ikastaro berri batean hasi dira Aresoko neska-mutikoak

'corte y confeccion' kurtsoan okindegian eman daiteke izena.

□ **Mediku** kontsulta

eguna aldatu da. Asteartetik ostegunera eta ordutegia mantenduz: 8,30etatik 10ak arte.

Ontto eta zizen inguruan, aste bukaera interesgarria

Igandean gastronomia lehiaketa burutuko da

JOSEBA AZPIROZ

Kultur taldeak antolatuta, hilaren 26an, Herriko plazan, ontto eta zizen erakusketa izango da, goizeko 11,30etatik arratsaldeko 7ak arte.

Izen ematea 22 edo 23an egin daiteke, arratsaldeko 7etatik 8,30etara, Kultur taldeko gelan (Udaletxean). Onttoak hiru multzotan sailkatu beharko dira: jan-garriak, jateko baliorik ez dutenak eta pozointsuak.

Erakusketaren inguruan, beste zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Hilaren 23rako eskolako ikasleek mailez mail ontto eta zizen marrazkiak aurkeztu ahal izango dituzte, erakusketaren egunean ikusgai izango delarik Plazan.

Igandean baita ere, gastronomi lehiaketa burutuko da. Ordubietako platerak prest eduki beharko dira eta



Hilaren 26an Inguruarteko zelaian Galaper tiraketa ospatuko da, Aizan K.E.k antolatua. Argazkian elkarte honetako zenbait kide agertzen dira

epaimahaikoek dastatu-takoan, bertaratzen direnak dastatu ahal izanen dituzte. Prestatu behar diren ontto eta zizak, Aranzadi Zientzia elkarteak onartuak izango dira bezperan.

Arratsaldeko 7,30etarako sailkapenari buruzko bideo emanaldia prestatu dute.

EPA ikastaroak

Hilaren 24ean, ostirala, arratsaldeko 4,30etan Lanbide eskolan EPA ikastaroei buruzko bilera izango da. Bertan, ikastaroaren mamia, ordutegia, eta beste zenbait xehetasun argituko dira.

Izena ere eman daiteke, bitartean ez bada eman.

□ **Graduado** Eskolarra ateratzeko Euskara Zerbitzuak prestatutako ikastarorako 7 lagun aurkeztu dira, eta egiteko 15 behar direnez, anima eta saiatu zaitez.

□ **461 ikasle** matrikulatu dira eskolan, iaz baino 31 gutxiago (62k utzi eta 31 hasi). Guztira, 413 euskaraz eta 48 erdaraz.

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

5.600 *haspidedun*
19.000 *irakurle**

* Nafarroako Gobernuak egindako Audientzia Estudioaren datuak.

VITALICIO ASEGURROAK

M^a JESUS BARAIBAR ASTIBIA

• Herriko Plaza 5, Behea
• 31870 LEKUNBERRI
• ☎ (948) 60 45 71

**GRUPO
VITALICIO
SEGUROS**

BAZTAN

Aurtengo udal aurrekontua 722 milioi pezetakoa izanen da

Abuztuaren 31n onartu ziren UBren kontrako botoekin


JOSEBA IGARABIDE

722.032.753 pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua. Aurrekontuak EA (4), HB (2) eta PSOeko (1) zinegotzien aldeko botoa bildu zuen eta UBko seien kontrakoa. Dirutzarik haundiena inbertsioetan (252 milioi) eta langileen soldatak ordaintzeko (218 milioi) gastatuko da. Diru-sarrerarik inportanteena Nafarroako Gobernuaren bidez (254 milioi) lortuko da.

Baztango udal ikastola eta 'F.J. Iriarte' Zahar eta Jubilatuen egoitzaren aurrekontuak ere onartu ziren udal-batzarre berean. Ikastolak 52.400.000 pezeta izanen ditu diru sarrera-irteeretan eta Zaharren egoitzak 127.800.000 pezeta.

Autobusa unibertsitatara

Epea bukatu ondotik autobusa antolatuko da Nafarroako unibertsitatara joateko. Malerreka eta Baztango ikasleek aukera izanen dute egunero Iruñearako joanetorria egiterik prezio berezian.



Santiago karrikako saneamendu lanak aintzineratzen doaz

Karmele

148 nekazarik esne produkzioan baja boluntarioa aurkeztu dute

Behiesnearen prezioa ez da ona bainan aurten mantendu egin da 'prima'-ren gatik. Nafarroan, 148 nekazarik esne produkzioan baja boluntarioa aurkeztu diote Nafarroako gobernari. Honek 10 milioi litro esne produzitzetik uztea suposatzen du. Nafarroako gobernua 100 milioi pezeta ordaintzen badu urtean, litro horiek esne kuota erre-serba bezala gordetzen ahal ditu Nafarroako nekazarien artean banatzeko, baina dirudienez, diru falta dela eta

Nafarroako gobernua estatua aldera bideratu nahi du esne ordainketa. Honek, kuota Madrilan esku gelditzea suposatzen du. EHNE sindikatoa eginahalak eginen ari da kuota hau Nafarroan geldi dadin eta horretarako gobernu eta oposizioeko talde parlamentarioekin elkartu behar da.

□ **Koipuei** (arratoiak bezalako animaliak) buruzko neurriak hartzea eskatu diote udalari. Erreka eta baratzetan barna dabilta, kalte haundiak eraginez.

W ttipi-flash

- **Ludotekan** Maite Larregi eta Juana Aleman ari tuko dira lanean. Lau ordutako lanaldia izanen dute.
- **Martin Barberena** Erratzuko semea, Berroetako apezka 35 urtez izana eta NARBARTEN hainbat urtez egondakoa irailaren 14ean hil zen. Pertsona alai, kirolzale, lagun eta pelotazale amorratu bezala ezagutua izan da.
- **Ehizturiak** mugimenduan hasiak dira. Erro eta Baztan arteko Quinto Realeko usategietako postuak subastan ateriak dira. 150.000 pezetatik hasi eta 2 milioi bitarteko hasierako prezioa dute.
- **Azienda sariketa** burutuko da irailaren 26an. Behipirenaikak eta ardi latxaren sariak banatuko dira. Seguruenik jende aunitz hurbilduko da Elizondora ikuskizun honetara.
- **Euskarazko** matrikulario kanpaina hasi du AEKK. Eraberean EPA ikastaroak ere hastear daude.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAZKENEKO ARROPA
Aukera PUNTUZKO JERTSETAN

IRAGARKI HAU 5.600 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

Anizko bestak, urriaren 2tik 5era

Basaburuan aurtengoz azkenak

PABLO MENDIBURU

Anizen bestak ospatuko dira urriaren 2tik 5era egitarau honekin:

Urriak 2 (larunbata): Baztan zopak Mendiarte elkartean eta arratsean Martin taldearekin dantzaldia.

Urriak 3 (igandea): Meza nagusia Arrosario amabirjinaren ohorez. Ondotik, Baztango koralaren kantu emanaldia. Arratsaldean herri kirolak: Mutiletan Basaburua eta Arraiozko taldeen artean eta nesketan Basaburua eta Berriozen artean. Arratsean dantzaldia Martin eta bere taldearekin.

Urriak 4 (astelehena): *Haurren Eguna*. Goizean



Anizko bestak lau egunez luzatuko dira

mus txapelketa eta arratsaldean Baztango pilota eskolako kideen arteko pilota partidoak. Dantzaldia Joxe Angelekin.

Urriak 5 (asteartea): 10etan herrian barna itzulia

zaldiekin. Eguerdian zikirojatea. Bazkalondoan bertsolariak: Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Txomin Amorena. Dantzaldia Joxe Angelekin.


W ttipi-flash

- ☐ **Felix Irigoienek** ez du Nazioarteko Ardi Zakur lehiaketara joaterik izanzen. Laugarren postua eskuratu zuen Berrizko Euskalerriko txapelketan Cubino zakurrarekin.
- ☐ **Arraiozen eta Amaiurren** kloro nahikorik ez omen du urak, Nafarroako Gobernuak Osasun Institutorearen arabera.
- ☐ **Azaldegia** eta Iruritako erreka artean dagoen bidea konponduko da eta bertan 420.000 pezetatan. Giltxaurdi futbol zelaiko obrak berriaz, Goienetxe eraikuntzak egiten du 6.545.314 pezetan truke.
- ☐ **Bi futbito** porteria paratuko dituzte laister Anizko frontoian.



KIWI BAZTAN, S. A.

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENENKO SALMENTA



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

M^{re} Dolores Mirana TOPOGRAFA

NEURKETAK • PLANOAK

Lur neurketak
Luberrak

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

ARLA
ARDOTEGIA

Ardoak eta likorrak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

HAURRENDAKO PSIKOLOGI GABINETEA



SUASI

Santiago 56A - 2. D
Tfnoa: 580771 - ELIZONDO

Zuen seme-alabak arazoak baldin baditu:

- Bertzeekin harremanetan jartzen ez delakoz.
- Goserik ez duelakoz.
- Ikasketetan sartzen ez delakoz

DEITU!

SARA

Herriko bestak, jendetsuak eta umoretsuak

Urtero bezala, udatiar aunitz ibili da hemen gaindi

MIXEL ETA JACQUELINE

Aurtengo bestak umore ederrean iragan dira eta jende andana bat ibili da herriko karriketan barna, larunbatean gehien bat.

Egun guztietan musika, dantza eta kirola ukan dugu batean zein bertzean eta aspertzeko aitzaki guti. Aipatu gabe ezin utzi besten azken egunean trinketeko zabaldeian burututako Sarako azienda primak, urteak iragan ahala arrakasta haundiagoa izaten bait dute.

Udatiar aunitz

Aurten ere udatiar aunitz hemen gaindi... Sasoina burutzen ari da. Agorri-lean jendeketa haundia ibili da gure eskualdetan, uztai-



leanaldiz gutiago, baina hori urte oroz bezala izan da. Agian sasoin hunen ondotik, denda, jatetxe, ostatu, kanpaleku, pizkina eta le-

zeak pozik geldituko dira. Sail berean jarraikiz elkar-teen ere beren usadioko ekitaldiak burutzeko parada ezin hobea ukan dute. Ho-

rra erdietsi diruari esker beren taldeen bizia segurtatzen dute eta beharrezkoak diren antolaketak eta lanak bururat eremaiten.

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

GA SAKAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de
REPSOL
AUTONO

**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

FZ
FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

**FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat**

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure

karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN

DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Santiago 71, ☎ 580166

**TALLERES
ZALDAIN**

ELIZONDO

► Aluminio eta burdin aroztegia
► Toldoen instalazioa

**Eskisaroí
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

ELIZONDO

62 ikaslek eman diote hasiera ikasturte berriari

Hamalauk euskaraz eginen dituzte ikasketak, eta 7 irakasleetatik 5 berriak izanen dira

ALIZIA OLAIZOLA

Hiru urtez goitiko 14 haur berri hasi dira aurtengo eskolan. Iaz zortzigarren maila finitu zuten ikasleak, bertalde, lau izan ziren. Dena dela, hirutanogoitabi ikasleetatik hamalauk euskaraz ikasiko dute, eta gainerako guztiak erdaraz bakarrik.

Zugarramurdi-Urdazubi ikastetxean aurtengo aurtengo diren zazpi irakasleetatik bost berriak izanen dira, eta iaz bezala, gimnasia irakaslerik gabe segituko



Eskola hasita akitu dira udako denborapasak

dute. Hortaz, bertze irakasleak euren artean moldatu

beharko dute gimnasia emateko.

Lourdes-erat bidaia

Irailaren 19an egin zen eta usadioa den bezala, jende andana joan zen.

Lau hilabetetan bostz haur sortu

Aurtengo bostzgarren jaiotza, Jon Bengoetxearena, uztailaren 28an izan zen. Lau hilabetetan bostz sortu dira, hauetatik hiru uztailaren. Aspaldi hontan etzen hainbertze jaiotzik izana herrian.

Bertalde, irailaren 5ean izan zen Arantxa Etxeberriaren bataioa.

ZUGARRAMURDI

Bi basurde ehizatuak

Berenak eginak zituzten baratzetan

KORO ETA MARGARI

Bentetako alde hoietan lurrak dituzten nekazariak azken egun hauetan sutan zeuden basurdeak berenak egiten ari zirelako. Azkenekoa Sueldeikobordako aketz bat jokatzeko izan zen. Afera horrela, ehiztari batzu atera ziren eta fini!: Itzalu-netik bi basurderekin bueltatu ziren. Ustez, hunekin

bukatu izanen da arazo hau. Nahi izan duenak Iriarteko hozkailuan ikusi ahal izan ditu basurde hauek kokotzetik zintzilikatuak.

□ Egin egunkariak antolatzen duen mus txapelketaren kanporaketa bat herriko 'Kisulabe' ostatuan izanen da. Izena lehenbaitlehen eman behar da, bikoteko 3.000 pezeta ordainduz.



Zugarramurdiko ikuspegia Zubiako menditik

Txapelketa urrian hasiko da eta sariak ez dira batere txar-

rrak: kotxe bat, 500.000 pezeta eta bertzelakoak.

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU



ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



EZKONTZAK

Rafael Agerre Agerrebere eta Begoña Etxalar Etxaide, Almandoz eta Zigakoa, abuztuaren 14ean.

Pedro Gastearena Elizalde eta M^a Luz Ansalas Iñarrea, Ezkurra eta Almandozkoa, abuztuaren 14ean.

Rafael Mitxelena Maritorea eta Ana Larnagarai Etxenike, Amaiur eta Azpilkuetakoa, abuztuaren 21ean.

Julian Rekalde Irigoien eta Michelle Organbide Goñi, Amaiur eta Bearzungoa, abuztuaren 21ean.

Lazaro Perurena Etxeberria eta Maria Agirre Azkarraga, Arizkun eta Oronozkoa, abuztuaren 28an.

Juan Jose Ramos Juankorena eta M^a Isabel Iraola Maritorea, Sunbilla eta Berroetakoa, irailaren 11n.

JAIOZAK

Josune Gago Balda, Doneztebekoa, irailaren 3an.

Bihotza M^a Pilar Irurita Rubio, Doneztebekoa, irailaren 5ean.

Mikel Maia Madariaga, Lesakan, abuztuaren 30ean.

Leire Pastor Ordoki, Lesakan, abuztuaren 13an.

Luisa Mugika Tomasena, Elizondokoa, irailaren 4ean.

Ana Jaimerena Azkarraga, Elizondokoa, irailaren 3an.

Jon Bengoetxea Irigoien, Urdazubikoa, uztailaren 28an.

Itxaso eta Irati Arrieta, Sunbillan (Berrobi), uztailaren 28an.

HERIOTZAK

Alejandra Fernandez Esteban, Elizondokoa, abuztuaren 7an, 80 urte.

Jose Luis Aramendi Etxandi, Elizondokoa, abuztuaren 16an, 66 urte.

Clara Gaztelu Jacome, Iruritakoa, abuztuaren 16an, 91 urte.

Juana Mendizabal Arkarazo, Elizondokoa, abuztuaren 19an, 81 urte.

Juana Irigoien Larralde, Elizondokoa, abuztuaren 24ean, 62 urte.

Prudencio Etxeberria Arozena, Amaiurkoa, abuztuaren 30ean, 69 urte.

Antonio Organbide Gurrutxaga, Zugarramurdikoa, irailaren 9an, 79 urte.

Ainhoa Intza Lekuona, Lesakakoa, irailaren 7an, 15 urte.

Maria Amiano Garro, Elizondokoa, irailaren 7an, 80 urte.

Maria Erburu Orquin, Elizondokoa, irailaren 12an, 91 urte.

Martin Barberena Aleman, Elizondokoa, irailaren 14ean.

Bautista Adin Francesena, Elizondokoa, irailaren 14ean, 56 urte.

Encarni Zunda Arozarena, Elizondokoa, irailaren 14ean, 82 urte.

Juan Martin Altxu Iparragirre, Iturrengoa, irailaren 2an.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,

2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,

aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,

bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

Denetarik gauzarik hoberenak.

Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.

Centro Comercial

LUIS
MARIANO
Irun

EUSKARA AURRERA



BAZTAN • BORTZIRIAK • LEITZA-GOIZUETA • MALERREKAKO EUSKARA ZERBITZUAK



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak



ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ

GUREGANA:

AZULEJOAK, GRES, MOBLEAK,
ISPILUAK, GRIFERIAK, MANPARAK
ETA BEHAR DITUZUN OSAGARRI
GUZIAK

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN

Etxeak berritzeko laguntzak

Hamar urte baino gehiagoko etxeak sartzen ahal dira, eta baita elbarrituendako egokitu nahi diren etxebizitzak ere

Joan den ekainaren 2an argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak, etxebizitzetarako Nafarroako Gobernuak aurrikusiak dituen laguntzak guziak; Protekzio Ofizialeko Etxebizitza berrietarako laguntzetatik hasi eta etxe zaharrak berritzeko dauden laguntzekin bukatu bitarte. Foru Dekretu honen kapitulu desberdinen artetik, oraingo honetan, zehazki etxeberrikuntzetarako atalean agertzen diren xehetasunak bildu ditugu, eta bide batez, aspektu interesgarrienekin laburpen bat egin. Dena dela, partikular ugari dira laguntza hauengatik interesa agertu dutenak dagoeneko, halaxe adierazi digute behintzat zona mailan gai honetaz arduratzen direnak.



Etxeak berritzeko laguntzetara bildu ahal izateko zenbait baldintza bete behar dira:

- 1.-Etxeak 10 urte baino gehiago izan behar ditu, elbarrituentzako egokitze kasuetan izan ezik.
- 2.-Berrikuntzetan ezin da sartu kanpokaldeko paretak botatzea, etxea barrerendik hustutzea edo pilareak eta gapiriak lekuz aldatzea.

- 3.-Berrikuntzak egiteko eta udal-baimena lortzeko ez du traba legalik egon behar.

- 4.-Berrikuntzak egin ondok, bertan bizitzen jartzeko behar diren egokitasun baldintzak bete behar harko ditu etxebizitzak.

- 5.-Etxearen %70a baino gehiago bizitetzerako izan behar harko du. Portzentai horretan ez da sartuko beheko sotua.


Guzi honetatik zalantzaren

bat sortuko balitz edo hemen aipatzen ez den zer baiten inguruan dudaren bat aterako balitz, interesatuak Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zerbitzura jotzeko; Iruñako 107561 Tfñora deituz edo bertzenaz Leitzako Udaletxera (Etxeberrikuntzarako Zerbitzua, tfñoa. 510310) eta baita Baztan eta Malerreka-Bortzirietako 'Cederna-Garalur' en bulegoetara 580561 eta 451654 tfñoak.

ETXEBERRITZEA PAUSOZ PAUSO

ZER BERRIKUNTZA?

Etxebizitzarekin zerikusia duen edozein berrikuntza: estruktura, teilatua, etxe barneko instalazioak, ateleihoak...



ZENBATERAINOKO LAGUNTZAK?

Gutienez: 500.000 Pzta. elbarritu kasutan salbu.
Gehienez: moduloa (84.646 pzta.) x m² erabilgarriak x 1,2

DIRU PRESTAMEN EDO MAILEGUAK

Gutieneko aurrekontua: 1.000.000 Pzta. etxebizitza bakoitzeko.
Zenbaterainoko mailegua: 0,70 x moduloa (84.646Pzta.) x m² erabilgarriak
Amortizazioa: 5 - 15 urte bitarte eta 15 hilabeteko urritasuna
Maileguaren korritua: Oinarri zergagarria PGSa baino 3,5 ttikiagoa... %7a
Oinarri zergagarria PGSa baino 4,5 ttikiagoa... %9a
Oinarri zergagarria PGSa baino 5,5 ttikiagoa... %12,5a



DIRU-LAGUNTZAK

► 50 urtez goitiko etxeak edo elbarrituendako moldaketak

Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 2,5 ttikiagoa...	%22	%28
Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 3,5 ttikiagoa...	%18	%24
Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 4,5 ttikiagoa...	%14	%20
Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 5,5 ttikiagoa...	0	0

► 10 eta 50 urte arteko etxeak

Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 2,5 ttikiagoa...	%11	%14
Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 3,5 ttikiagoa...	%9	%12
Oinarri zergagarria PGS ⁽¹⁾ a baino 4,5 ttikiagoa...	%7	%10

⁽¹⁾ PGS= Profesioarteko Gutieneko Soldata (819.420 Pzta. urtean)



AURKEZTU BEHARREKO PAPERAK

- Etxe-jaberaren Nortasun Agiria (DNI) 2 fotokopia
- Etxearen eskriturak (2 fotokopia)
- Errenta Aitorpena (2 fotokopia)
- Etxearen argazkiak (kanpotik eta moldatu beharreko aldeak)
- Obraren aurrekontua (neurketa eta prezioekin)
- Proiektu teknikoa
- Obra Baimena edo Lizentzia



Maite Oteiza, Baztango udal haurtzaindegiko irakaslea

«Lehen orain baino urte gehiagoz edukitzen zituzten haurrak etxean»

Irailarekin batera hasi dute inguruko neska-mutikoek 1993-94 ikasturtea.

Normalean 3 urterekin hasten dira haurrak ikasten, baina Baztanen gazteagoak ere hasten dira azken hiru urteotan martxan dagoen udal haurtzaindegian.

Bertan, haurrak zaintzen Pili Oiaregi elizondoarra eta Maite Oteiza iruritarra topatu ditugu.

Azken honekin solasaldia izan dugu, zerbitzu honen berri jakin asmoz.



ttipi-ttapa. Zein adinakin hasten dira haurrak honat ekartzen?

Maite Oteiza. Hasten dire 18 hilabetekin eta hiru urte bete artio. Hiru urte betezkin eskolando ikastolan hasten dire.

ttipi-ttapa. Noiz sortu zen haurrak zaintzeko zerbitzu hau?

Maite Oteiza. Honekin

hirugarren urtea betetzen dugu. Lehenbizikoan ikastolan klase bat egokitu zuten eta ondotikan konzentrazioan bertze bat. Baino gero inspektorea etorri eta baldintzak ez zituztela betetzen erran zuen. Orduan urtarilan hasi zen lehen aldiz haurtzaindegia udalaren eskutik eta hurrengo kurtsoan irailaz geroztik hasi ginen

gela honetan.

ttipi-ttapa. Zenbat haur dituzue eta zein ordutegirekin?

Maite Oteiza. Aurten 22 haur apuntatu dire eta gan den urtean 30. Halere ez dira apuntatutako guztiak hasten. Orain arte guztiak Baztangoak ziren, baina aurten Sunbillako bat ere apuntatu zaigu. Klaseak, irailetik

ekaina bitarte izaten dira, goizez bakarrik, 9etatik letara. Lehenik denak elkartzea esperatzen dugu, gero ipuinak kontatu, filmiak ikusi, errekreora ateri eta eguerdi aldera etxera joateko prestatzen ditugu. Arratsaldetara zabaltzeko arazo nagusia ekonomikoa da, Udalak ez baitu horretarako dirurik.

ttipi-ttapa. *Gurasoen aldetik, honelako zerbitzu bateen demanda haundia al dago?*

Beno, oraindik zerbitzu nahiko berria da Baztanen eta jendeak ez du sobera ezagutzen. Baina pentsatzen dut pixkanaka-pixkanaka haunditzen ganen dela. Dena den, lokala eta baldintzak ez dira hoberenak.

ttipi-ttapa. *Zer behar da haurtzaindegi batean lanean aritzeko?*

Maite Oteiza. Guri magisteritza eskatu ziguten eta euskara ere jakin behar duzu. Iaz, 30 haur apuntatu zirenez, puerikultura bat kontratatzea ere erabaki zen ttikiekin egoteko eta deialdia ere zabaldu zen, baina hortan gelditu zen kontua eta ez zen ja egin.

ttipi-ttapa. *Nola ordaintzen da zerbitzu hau?*

Maite Oteiza. Haurtzaindegia ofizialki udalarena da.




«Iaz hilabeteko eta haur bakoitzeko 5.000 pezeta pagatzen zen eta aurten 7.000 eskatu dira, baina zenbait guraso ez daude igoera honekin ados»

Halere, nahiz eta udal zerbitzua izan lokala monjei alokatua da. Azkeneko urteotan Nafarroako gobernari dirulaguntza eskatu diogu baina ez digute eman. Hortaz aparte, gurasoek zati bat ordaintzen dute. Gan den urtean hilabeteko 5.000 pezeta pagatzen zuten eta aurten 7.000 eskatu zaie, baina zenbait guraso ez daude igoera honekin ados eta udalarekin solastu behar dugu. Beraien ustez, prezio igoera hau %40koa ez da zerbitzuaren hobetzearekin bat etorri eta kexu daude.

ttipi-ttapa. *Haurrak honat ekartzen dituzten gurasoen perfila nolakoa da?*

Maite Oteiza. Kasu batzuetan aita eta ama langi-



leak dira, baina gehienetan ama etxeakoandrea izan ohi da. Pentsatzen dut aunitzek haurra etxetik kentzeagatik ekartzen dituztela haurtzaindegira, baina bertzalde, haurrak gero eta gazteagoak

direlarik eramaten dituzte eskolara. Horretan ohiturak aldatzen ari dira, lehen haurrak etxean urte gehiagoz egoten bait ziren.

Testua: Aitor AROZENA
Argazkiak: Karmele TOLOSA



«Jendeak ez du oraindik zerbitzu hau sobera ezagutzen»

Eratsunek Retegi Ila omendu zuen

Meza, herri bazkaria eta pilota partidua, herriko besten barrenean

Eratsungo herriak omenaldia eskeini zion irailaren 12an aurten hamekagarren urtez eskuz eskuko txapela lortu duen Julian Retegi herriko semeari.

Goizetik txistularien diana, meza eta sari banaketa egin zen. Sariak Julianentzat, bere osaba Juan Ignaciorenzat eta Martin Ezkurra, urteetan bien botilleroa izandakoarentzat izan ziren nagusiki. Ondotik, 300 lagun inguru bildu zuen herri bazkaria izan zen. Gonbidatuen artean, Indurain txirrindulariaren aita eta hainbat pilotari profesional—Eugi, Zezeaga edo Bergara II bertzeak bertze—ikus zitezkeen. Bazkalondotik pilota partido ikusgarria jokatu zen; Retegi II eta Retegi V lehengusuek 25-23 irabazi zieten Urzainki, Retegi



Hirugarren omenaldia jaso zuen Julian Retegik bere herritarren eskutik. Lehena, duela 18 urte izan zen, berak bigarren mailako txapela eta bere osaba Juan Ignaciok lehen mailakoa eskuratu zutenean

Argazkia: NAVARRA HOY

IV eta Retegi VIari.

Julian Retegik erran zuenez, "ilusio gehien egin

didan omenaldia izan da, dena ongi aterida, bai antolaketa aldetik, baita egural-

di aldetik ere; gainera herri guztiak parte hartu du". Zorionak, Julian!


Herri herri txapelketako finalistak ezagutzen dira

Nafarroako Herri Kirol federazioak antolatutako Herri herri txapelketako (proba konbinatua) finalistak ezagunak dira dagoeneko, azken sailkapen probak Lizartzan eta Berriozarren burutu ondotik.

Mutiletan, A multzotik Bera eta Berriozar taldeak izan dira finalerapasatuko direnak, Arantza eta azken

sailkapen proban irabazle suertatu zen Ultzamako taldea kanpoan utziz. B multzotik berriz, Sunbilla eta Araiz iritsi dira finalera, 10 eta 9 puntorekin, kanpoan Arraioz gelditu delarik, bakarrik 5 puntu eskuratu bait zuen sailkapen proba guztien artean.

Nesken probako finale-rako Sunbilla, Arantza, Ba-



saburua-Baztan eta Lesakako taldeak sailkatu dira,

Berriozarko bestetan egin-dako probaren ondotik.

Futbol denboraldia hasi da eskualdeko taldeentzat

Nahiko ongi hasi dute eskualdeko futbol talde nagusiek 1993-94 denboraldia. Aurten hirugarren mailan jokatu duen Baztanek galdu egin zuen lehen partidoa, baina Elizondon jokatuakoa 5-0 irabazi zuen. Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan jokatzeko dute Gure Txokoa beratarak eta Beti Gazte lesakarrak, eta Nafarroako maila berean jokatzeko dute Aurrera leizarrak. Dute oraindik partidori galdu hau idazterako orduan.



Baztan futbol taldea da eskualdeko taldeen artean maila altuenean jokatu duena

Argazkia: ONDIKOL

LEHENBAILEHEN BEHAR DUGU

- Familietan interna moduan lan egiteko emakumeak.
- 18 urtetik goitikoak.
- Deitu 15 14 77 hñora.



dos en punto

Langilegoaren aukeraketan espezialduriko agentzia

Tafalla kalea, 5 Tartepl. Ezk. • Tfnoa: 15 14 77 • 31004 Iruña

ETIKO LANETARAKO ETA
HALUR, GAIKO ETA
ADINEKOEN ZARAKETARAKO
SOLUZIO EGOKIA



Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina
Tfnoa: 63 10 27 • BERA

BIDASOAKO IX. BERTSO PAPER LEHIAKETA

BAZTAN BIDASOA INGURUAN BIZI DIRENENTZAT
BALDINTZAK

- 1.- Argitaratu gabeko bertsoak izan beharko dute.
- 2.- Bertze Lehiaketaren batetan saririk jaso duten bertsoak ezin izanen dute parterik hartu.
- 3.- Norberak aukeratu du gaia, kantatuko duen doinua eta neurria.
- 4.- Hiru maila izanen dira:
 - A- 14 urtetaraino: 4na bertso guttienez
SARIAK: 1.a Oroigarria eta 5.000 pzta.
2.a Oroigarria eta 3.000 pzta.
 - B- 14-16 bitartekoak: 6na bertso guttienez
SARIAK: 1.a Oroigarria eta 8.000 pzta.
2.a Oroigarria eta 4.000 pzta.
 - D- 16 urtetik gorakoentzat: 8na bertso guttienez
SARIAK: 1.a Oroigarria eta 12.000 pzta.
2.a Oroigarria eta 6.000 pzta.
- 5.- Bertsoak onartuak izateko, izenburua bakarrik eramanen du agerian. Gutunazal itxi batetan bidaliko da, horren kanpoaldean bertsoaren izenburua eta barrenaldean berri, egilearen izen eta abizenak, telefonoa eta helbidea.
- 6.- Bertsoak GURE TXOKOA Elkartera Urriaren 20a baino lehen bidali beharko dira.

Antolatzailea:

GURE TXOKOA ELKARTEA

Eztegara Ibilbidea • BERA (Nafarroa)

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

▼ Etxebizitzak

• **Donezteben** pisu amoblatua alkilatu nahi dut heldu den kurtsorako. ☎ 450263.

▼ Lana

• **Elektrizitate**, pintura eta aparailu ttikien konponketak. ☎ 631283.

• **Lan** egin nahi nuke irailaren 15etik aintzinera, etxeak garbitzen edo haurrak zaintzen. ☎ 450526 (Nekane).

• **Neska** gazte batek, Lesakan edo Beran lan eginen luke, haurrak zaintzen edo etxeko lanetan. ☎ 637061 (eguerditan).

• **Lan** eginen nuke orduka edo egun osoz. Asteburuetan ere bai. ☎ 631079 (gaueko 10etatik aintzinera).

▼ Salerosketak

• **Citroen** Meari (NA-M) salgai. ☎ 630268.

• **Renault 18** GTS (POL matrikula), salgai 100.000 pztatan. Ordainketarako erraztasunak. ☎ 531283.

• **Renault 5** TL xuria

salgai, NA-9719-W, 29.000 kilometro. Deitu arratsaldetan 8-10etara. ☎ 510078.

• **Akumuladoreak**, olioeko berogailuak eta sukaldeko tresna zaharrak salgai prezio onean. ☎ 592157 eguerditan.

• 3 urteko **ahari** mutur gorria salgai. ☎ 514152.

• **Ford Orion** 1600 Ghia-Si kotxea salgai. ☎ 631391.

• **Behiak** jeizteko makinan salgai Zalain Zokon. ☎ 630994.

• **Labadora** salgai, Zanussi. Gutxi erabilia, prezio onean. ☎ 627587.

• **Motoa**, Montesa 349 salgai. ☎ 627587.

• **Esne tankea** salgai, erabili gabea. ☎ 627587.

• **Aharia** salgai, mutur hori eta gorriak, adarrik gabeak, 2, 3 eta 4 urtekoak. ☎ 943-331686.

• **Moble** zaharrak eta laborantza tresnak salgai. ☎ 451518.

• **Pentax** objektiboa, 28-80mm, salgai. ☎ 610753 (gauez).

• **3 urteko** asto arra salgai. Zikiratua. ☎ 510437.

• **Esne tankea** erosiko nuke, 100-150 litrokoa. ☎ 450492 (eguerditan edo arratsetan).

• **Bulegorako** bi mahai eta ordenagailuarendako gehigarria, eta lau aulki (bi biratzaileak) salgai, modu onean. Interesatuak 631199ra deitu (Elsa) arratsaldetan edo 630856ra goizetan.

• 7 urteko **behi gorria** bere aretze zezenkoarekin salgai. ☎ 581023.

▼ Denetarik

• **Zuhaitzak** aldatzeko barruti, belar soro edo ireztor lekua erosiko nuke Leitzen, Areson, Ezkurran, Uitzin edo Gorritin, kotxez bertaraino iristeko moduko lekuan. Milioi bat pezeta arte ordainduko nuke. ☎ 510476 (Patxi).

• **Goizuetako** festetan erloju bat galdu nuen. ☎ 514101. Sarituko da.

• **Giltza** kartera bat atze-man dugu Zugarramurdin. ☎ 599144.

• **Iruñako** Unibertsitate Publikotik hurbil dagoen pisu batean leku bat baldin baduzu deitu 637921 ☎ra.

• **Bi zakurkume** erregalatuko nituzke. ☎ 510027.

• **Husqvarna** Enduro 430 motoa (NA-AC), Trail 500-600 motoaz aldatuko nuke. ☎ 453307 (gauez).

• **Neska** bat behar da Iruñako Alde Zaharrean pisu bat konpartitzeko. ☎ 580040 (goizetan-Ana).

▼ Harremanak

• **Dantxarineako** Sara V.ri Ez zenuen belarridun horren beharrik. Noiz arte espetu behar zaitudala uste duzu? Hurrengo bestetan ikusiko zintuzket. Zuk dakizun baten partez.

• **Labaingo** Anabelentzat: Oso polita eta sinpatika zara. Badakit Oizko batekin ibiltzen zarela, baina berdin zait, ez zaitut inoiz atzenuko. Maite zaitut. T.C.

• **Leitzako** amona Ferminari zorionak bere urtebetetzeagatik. Bere hiru alaba eta sei biloben partez.



**GIZONEZKOEN
MODA**

**muñeca
de trapo**

**EMAKUMEZKOEN
MODA**

BIAK, IRUNGOr LUIS MARIANON



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

© 637796



**Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa ailegatu zaio.**

%9,75ko interesarekin

Pasa zaitez gure
bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

EXPOSICION ERAKUSKETA

"TURISMO Y DESARROLLO ECONOMICO"
"TURISMO ETA DESARROILO EKONOMIKOA"

BERTIZ



PARTZUERGO TURISTIKOA CONSORCIO TURISTICO

Irailaren 25etik urriaren 6ra Doneztebeko Liburutegian

Ordutegia arratsaldeko 5etatik 9etara

**Turismo Partzuergoak erakusketa hau ikustera gonbidatu nahi dizue bereziki
ondorengo herriotako biztanle guziori:**

**BERTIZARANA, BEINTZA-LABAIEN, DONAMARIA, DONEZTEBE,
ELGORRIAGA, ERATSUN, EZKURRA, ITUREN, OITZ, SALDIAS,
SUNBILLA, URROTZ ETA ZUBIETA.**